


GazteFilm Fest-en bikoizketa tailer bat egin dugu; bikoizketa tailer honi esker, ume eta gazteen ahotsekin *Dounia eta Alepoko printzesa* eta *Kurrin* filmen euskarazko bertsioak egin ditugu. Gure jaialdian zehar gure bikoizleen taldeak estudioan aritu dira gure pertsonaiei ahotsak jartzen.



Gure bikoizleei esker, bi film hauek euskaraz ikusteko aukera eskaintzen dugu; gure ikuspuntutik, balio handia du film luze hauek euskaraz eskaintzeak, uste baitugu kalitatezko eduki kulturala, zehazki haurrentzako euskarazko edukia, ez dela erraz aurkitzen. Horregatik, GazteFilm Festetik, haurrentzako euskarazko zinema-eskaintza zabaltzen lagundu nahi dugu.



Dounia

eta Alepoko printzesa

Fitxa teknikoa

Urtea	2022
Adina	+6 urte
Herrialdea	Kanada
Zuzendaria	André Kadi Maria Zarif
Iraupena	72 min

Gasteizen egindako bikoizketa
tailerraren emaitza
Euskarara bikoiztuta

Sinopsia

Esku ahurrean nigella hazi batzuk hartuta, 6 urteko Douniak Alepo hiritik alde egingo du. Alepoko printzesaren laguntzaz mundu berri batera abiatuko da, erronkaz beteta egongo dena.

Animazio atmosferiko eta onirikoa, soinu-banda oso iradokitzailea duena eta Marya Zarif artista eta idazlearen ipuin batean oinarritua. Siriako familia baten ihes eta erbesteratzearen esperientziara hurbiltzen gaitu filmak, neskato baten begiradatik. Bere beldurra eta ulertezintasuna sentituko ditugu, baina baita bere itxaropena ere.



Doimia eta Alepoko printzesa



1

Hauek dira filmaren pertsonaiak.

Lotu irudiak ezaugarriekin, soberan daude hitz batzuk, asmatu zeintzuk diren.
Lotu irudiak ezaugarriekin, soberan daude hitz batzuk, asmatu zeintzuk diren.



AUSARTA

JELOSKORRA

MAGIKOA

SUKALDARIA

BERRITSUA


GAIZTOA


MUSIKARIA

2



Margotu
gustokoen izan
duzun pertsonaia.





Dounia

eta Alepoko printzesa

3


Filman, Douniak ezkutitz bat bidaltzen du etxe bat aurkitzeko.

Binaka, idatzi ezkutitz bat Douniari. Filmaren inguruan dituzun zalantzekin edo jakin-minekin. Gero klasearekin komentatu.



Blank writing area with horizontal lines and a film strip graphic at the top.






Dounia

eta Alepoko printzesa

4

Douniak, gerra hasten denean, bere familiarekin bidaia bat egiten du hobeto bizi ahal izateko.

Mapa honetan marra batekin marraztu egiten duten bidaia.





Dounia

eta Alepoko printzesa

4

Douniak hiru aldiz erabiltzen ditu hazi magikoak, hemen bi daude. Klasekideekin komentatu zein izan den hirugarrena.

